



BGME TEKNIKARI BAT KONRATATZEKO IRIZPIDEAK

DEIALDIAREN HELBURUA_

Bizkaiko Mendizale Federazioko **Goi-mendi Eskolako arduradun** bezala aritzea, bere jardueren kudeaketaz eta koordinazioaz eta federazioak eskatutako hitzaldiez, seminarioez, formakuntza ikastaroez, eskalada lehiaketez, etab... arduratuko delarik. Era berean, eskalada bideen berrekipazio taldearen koordinazio lanez ere arduratuko da, Bizkaiko eskalada eremuen gaineko proiektu eta inbentarioaren ardura hartuko duelarik.

Zerbitzu hau lanaldi erdian emango du eta era berean, larunbat eta igande goiz eta arratsaldeetan lan egiteko moduan egon beharko da, ikastaroen beharrezanean erantzuteko. Kontratuaren modalitatea aldi baterakoa izango da hasiera batean.

HAUTAGAIEN BALDINTZAK:

Hautaketa probetan parte hartzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Adinez nagusia izatea
2. Federatua izatea
3. Mendiko kirol eta eskaladan erdi mailako kirol teknikari titulua (mendi ertainekoa, eskaladakoa, arroiletakoa edo goi mendikoa), edo maila goragokoa izatea.
4. Lehen Sorospentetan ziurtagiria izatea
5. Sexu deliturik ez izatearen ziurtagiria
6. Erabiltzaile maila informatikan (GPS programen erabilpena ordenagailuan, track-ak sortzea eta manipulatzeko, Excel zerrendak)
7. Euskara B1 maila
8. Gidatzeko baimena, B mota

Betebehar hauek eskaera burutzen den unean izan beharko dira

ESKAEREN AURKEZPENA ETA HAUTAGAIEN ONARPENA:

Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko eskaerak 2018ko **Maiatzaren 02tik 16ra** (biak barne) aurkeztu ahalko dira, aurrez aurre Bizkaiko Mendizale Federazioko bulegoan (**Martin Barua Picaza Kalea 28, 4.solairua, zabalik dagoen ordutegian**) edo bestela email bidez (Info@bmf-fvm.org) helbidean. Epez kanpo aurkezten diren eskaerak ez dira aintzat hartuko.

Eskaerarekin batera, hurrengo dokumentazioa erantsiko da:

- NAN kopia.
- Postua lortzeko eskatzen den Titulazioaren kopia.



- Federazio Lizentzia eguneratuaren kopia.
- Adierazten diren merituen erlazioa eta egiaztatzea kopia bidez, hautaketa prozesuan aztertzeko.

Prozesu honetan hautagaiak diren pertsonen parte-hartzeak, izaera pertsonaleko datuen babesen gaineko indarrean dagoen arautegiaren arabera argitalpenetan identifikatzeko baimen automatikoa suposatuko du.

Hautaketa prozesu oro arautzen duen publizitate printzipioa jarraituz, ez da datuen lagatzea onartzen ez duten hautagaien eskaerarik onartuko, eta era berean, sartze, zuzentze, ezeztatze edo aurkaratze eskubideak praktikan jarri nahi dituenak, organo deitzailearengana zuzendu ahalko du.

MARITUEN BALORAZIOA:

A. Titulazio akademikoak:

- 2. mailako KT Goi Mendian espezializatua ...2puntu
- 2. mailako KT Eskaladan espezializatua ...2puntu
- 2. mailako KT Arroiletan espezializatua ...2puntu
- 2. mailako KT Mendi ertainan espezializatua...2puntu
- 3. mailako KT Goi Mendian espezializatua ...3puntu
- 3. mailako KT Eskaladan espezializatua ...3puntu

Goi mailako Titulatuak edo graduatuak gei Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientzian Masterra...puntu 1

IGZ edo pedagogia eta didaktika gaitasunean masterra...puntu 1

Euskara B1...0,25 puntu

Euskara B2...0,50 puntu

Euskara C1- EGA tituluarekin...0,75 puntu

Euskara C2 tituluarekin...1 puntu

B. Elkarrizketa Pertsona: Gehienez 4 puntuko gehieneko puntuazioa izango du.

PROZESUAREN GARAPENA:

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, deialdiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, pertsona partehartzaileen meritua BMF-ko Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaizkio, hauek balora ditzaten.

Prozesuko bi faseak gainditu beharko dira:



Bizkaiko Mendizale Federazioa
Federación Vizcaína de Montaña

A: Merituen balorazioa B: Elkarrizketa pertsonala

Curriculumeko balorazioaren lehen fasea gainditzeko 2,25 puntu edo gehiago lortu beharko dira. Zuzendaritza batzordeak adierazitako merituen balorazioa egingo du eta eskatutako gutxienekoa lortu duten pertsonen erlazioa argitaratuko du, lehentasun ordenaren arabera eta elkarrizketen egutegiarekin batera.

Pertsona interesatuei elkarrizketen egutegia jakinaraziko zaie.

Akordio honen aurka, prozesuko pertsona partehartzaileek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute, aipatu argitalpena burutu eta hurrengo hiru egunetako epean, erreklamazio hau Zuzendaritza Batzordeak berak ebatziko du. Erabaki honen aurka ezingo da helegiterik jarri.